



# zuhaitzak *eta* arbolak

E U S K A L   H E R R I A N

JAKOBA ERREKONDO  
MARKEL ARRIOLABENGOA  
IÑAKI ETXEBESTE  
📷 DANI BLANCO

# Zuhaitzak eta arbolak Euskal Herrian



Ezkerretik eskuinera, Iñaki, Jakoba eta Markel.

## Jakoba Errekondo Saltsamendi

Paisajista, agronomoa eta dibulgatzailea. Besteak beste, *Euskal Herriko Sagardoa*, *Bizi Baratzea*, *Altza Porru*, *Etxeko Landareak* eta *Eskola Baratzea* liburuen eta *Ilargia* eta *Landareak* agendaren egilea da. ARGIAN eta Euskadi Irratian astero aritzen da, landareen kultura eta jakintza berreskuratzen eta zabaltzen.

## Markel Arriolahengoa Martiarena

Baso ingeniaria eta Errez Kooperatiba Elkarte Txikiaren zein Tantai Baso Jabe Kooperatibaren fundatzailea. Estaldura Jarraituko Basogintzaren inguruko argitalpenetan parte hartzen du eta, tarteka, baso bizitzaren inguruko bideo zein idatzizko ekoizpenak egiten ditu.

## Iñaki Etxebeste Larrañaga

Baso Kudeaketa Jasangarrian Doktorea eta ikerlaria. Errez Kooperatiba Elkarte Txikiaren zein Tantai Baso Jabe Kooperatibaren fundatzailea. Baso ekologia espazial eta aplikatuari loturiko gaiak lantzen ditu, izurriteen kudeaketari, basoen bilakaerari eta Estaldura Jarraituko Basogintzari loturikoak, nagusiki.

Larraun ibaia, Nafarroa.

## Urtaroz urtaro

*Zure besta larrazkenean balitz,  
joango ginen, Aita, hosto gorrien metatzera.*

*Zure besta neguan balitz,  
joango ginen, Aita, supazterren piztera.*

*Zure besta primaderan balitz,  
joango ginen, Aita, baso marrubien biltzera.*

*Baina zure besta udaren sortzean baita,  
goazen, Aita,  
lehen gerezi gorrien biltzera!*

Luixa Giltzu

# Bilabidea

<b>Hitzaurreak</b>	Juanita Larando patatxa	<b>Gaztainondoak</b> .....	<b>Intxaurrondoak</b> .....	Zume hauskorra.....	<b>Izeiak</b> .....
Bihotzaren erroak	<i>Mikel Leoz</i> .....	Gaztainondoa .....	Intxaurrondo arrunta .....	Zume jatorra .....	Douglas izeia .....
<i>Itxaro Borda</i> .....	73	Japoniako gaztainondoa .....	Intxaurrondo beltza .....	Zume negartia .....	Izei gorria.....
Goiko berezia	Arbolez dakiguna, bilakaera bat	<b>Hezurdunak</b> .....	Sofora japoniarra.....	Sasiakazia.....	Izei zuria.....
<i>Onintza Enbeita</i> .....	88	Basagereziondoa.....	Judasen arbola .....	Tuliperoa.....	Pinsapo izeia.....
Basoak olatuetan kulunka	Lurretia: aldats handiko lekuetan,	Gingondoa.....	Katalpa.....	Baso-makatza .....	Kriptomeria .....
<i>Xabier Agote</i> .....	lurra gora ekarri behar	Lapatxondoa.....	Likidanbarra.....	Urkiak .....	<b>Pinuak eta lerrak</b> .....
<b>Sarrera: Zuhaitzak eta arbolak</b>	<i>Nahia Gartzia</i> .....	Oilarana .....	<b>Lizarrak</b> .....	Xarma .....	Alepo pinua .....
<b>Euskal Herrian</b> .....	90	Otsagereziondoa .....	Lizar arrunta .....	Ailantoa .....	Itsas pinua.....
<b>Zuhaitza banako gisa</b> .....	Euskal Herriko	Portugal erramua .....	Lizar hostotxikia .....	Zumalakarra.....	Larizio pinua .....
<b>Zuhaitza eta arbola</b> .....	Zuhaitz Egunen jatorriaz	Arbendolondoa.....	Lizar loreduna .....	<b>Zumarrak</b> .....	Mendi lerra.....
'Zuhaitz' edota 'arbola'?	<i>Iñaki Sanz-Azkue</i> .....	Ginkgoa.....	Magnolia lore-handia.....	Siberiako zumarra .....	Pinazi pinua .....
Adierazlearen auzia	92	Gorostia .....	<b>Makalak</b> .....	Zumar dilindaria .....	Insignis pinua .....
<i>Markel Lizasoain</i> .....	94	<b>Gurbe jendea</b> .....	Lertxuna .....	Zumar hostotxikia .....	Ler gorria .....
<b>Zuhaitzaren edo</b>	Zura artean	Gurbeondoa .....	Makal beltza .....	Zumar hostozabala .....	Sekuoia luzea .....
<b>arbolaren egitura</b> .....	<i>Aintzane Erkizia</i> .....	171	Zurzuria.....	Hagina.....	Sekuoia erraldoia .....
<b>Zuhaitzen eta</b>	<b>Zuhaitzak eta</b>	Hostazuria .....	Marugatzeak.....	Gipuzkoako armarriko	<b>Zedroak</b> .....
<b>arbolen izendapena</b> .....	<b>arbolak</b> .....	Basagurbea.....	Milazkak.....	hiru zuhaitzak	Atlasko zedroa .....
<b>Ekologia</b> .....	<b>Astigarrak eta iharrak</b> .....	Otsalizarra.....	Mizpira .....	<i>Patxi Olabarria</i> .....	Himalaiako zedroa .....
Basoen mikrobiota	103	Gurbitza .....	Olibondoa.....	Alertzeak .....	Libanoko zedroa .....
<i>Ana V. Lasa</i> .....	Astigar arrunta.....	<b>Haltzak</b> .....	Pagoa .....	<b>Altzifreak</b> .....	<b>Ezaugarriak</b> .....
<b>Zuhaitzekin lanean</b> .....	104	Haltza.....	Paulonia.....	Altzifre arrunta .....	<b>Zurak</b> .....
<b>Ilargia</b> .....	Astigar zorrotza .....	Haltz italiarra .....	Pikondoa.....	Arizonako altzifrea .....	Zegamako Anduetza parketxeko
Enborrak zerratzea	106	Ezkurdunak .....	Platanoa .....	Taxodiumak.....	xilotekako argazkiak
<i>Iñaki Errekondo</i> .....	Astigar zuria .....	Abaritza .....	Baso-sagarrondoa .....	Lawson altzifrea .....	<i>Imanol Artola</i> .....
<b>Basogintza</b> .....	108	Ametza .....	<b>Sahats eta zumeak</b> .....	Leylandeko altzifrea .....	<b>Hitzen altxorra</b> .....
Baso, mendi, oihan	Ihar italiarra .....	Ametz ilaunduna .....	Ahuntz sahatsa.....	Monterreyko altzifrea .....	<b>Bibliografia</b> .....
<i>Oskar Arana</i> .....	Ihar frantsesa .....	Artea.....	Sahats iluna .....	Araukaria .....	<b>Bilabidea</b> .....
Moarroak	Negundo astigarra .....	Artelatza.....	Sahats zuria .....	Norfolkeko araukaria .....	
<i>Alvaro Aragon</i> .....	110	Erkametza .....	Zume gorria .....		
<b>Paisaia</b> .....	112	Haritzak .....			
Enborrak zerratzea	Almeza .....	Haritz amerikarra.....			
<i>Iñaki Errekondo</i> .....	116	Hurritza.....			
<b>Basogintza</b> .....	<b>Elorriak</b> .....	Indi-gaztaina .....			
Baso, mendi, oihan	119	Intsusa beltza .....			
<i>Oskar Arana</i> .....	Elorri beltza .....				
Moarroak	Elorri zuriak.....				
<i>Alvaro Aragon</i> .....	120				
<b>Paisaia</b> .....	Elorri zuria.....				
Enborrak zerratzea	Hegoaldeko elorri zuria .....				
<i>Iñaki Errekondo</i> .....	122				
<b>Euskal Herriko 235 zuhaitz eta</b>	Ereinotza.....				
<b>arbola aparta</b> .....	126				
Zuhaitzei begira leku-izenetatik	Eukaliptoak .....				
<i>Mikel Belasko</i> .....	128				
<b>Zuhaitzak eta arbolak lehengai</b> .....	<b>Ezkiak</b> .....				
Egurra suari	131				
<i>Sagrario Aleman</i> .....	Ezkiak .....				
Baserria eta zurezko bilbadurak	132				
Euskal Herrian	Ezki zilarkara.....				
<i>Ibon Telleria, Josue Susperregi</i> .....	135				
	Ezpela.....				
	136				



# Zuhaitzekin lanean

## Nola sortzen dira zuhaitzak eta arbolak?

**Z**uhaitzak eta arbolak sortzeko era asko dago. Naturan hainbat eratan ugaldutako ohi dira; hazi bidez, altsuma bidez, aldakaitzak emanda, eta abar. Guk ere hala egin ohi dugu, baina guztien artean ohi-koenak, agian, hazi bidezko ugalketa dugu.

### Hazia

Haziak heldutasun maila onena izatea komeni da. Hori zuhaitzean bertan egonda gertatzen da; hazia edo bera biltzen duen fruitua lurrera erori denean, gehienetan, heldu da. Heldutako haziak fruitu alean bertan eduki daitezke hura usteldu arte. Fruituaren mamia usteldutakoan, haziak atera eta ahal izanez gero, neguan kanpoan sentituko luketen egoeran mantendu behar dira. Mamitsuak ez diren fruituak (ezkurak, intxaurrak, hurrak...) ahalik eta azkarren jaso, ez lehertzeko.



Haritz kandugaberaren ezkurak. © Iñaki Etxebeste.

Bi era daude horrela jasotzeko. Bata, hazia bera heze eutsiko duen zerbaitetan hozkailuan eduki. Bestea, azpian zulatuta dagoen ontzi batean hondarretan geruzatuta jarri (hondar geruza bat, hazi geruza, hondar geruza, hazi geruza...), gaina hondarrez estalita. Ontzi hori kanpoan eduki, euritan bustitzen dela, eta negua sentitzen duela. Giro lehorrak badira, ureztatu. Haziari heze eustea garrantzitsua da, lehertuz gero bere ernetzeko gaitasuna zapuzteko arriskua baitago.

Negua erdialdera, otsailean, haziak erein egin behar dira. Ereintza loreontzietan, albeolotan edo lurrean bertan

egin daiteke. Lur harroa da onena. Hona ontziak betetzeko lur nahasketa egoki bat: erdia baratzeko lurra, laurdena mausarra edo itsasokoa ez den hondarra eta beste laurdena luarra, simaur zaharra, humusa edo zizare-lurra. Hazia lurrean bere lodiera bezainbeste sartu eta arin estali. Ureztaketa zaintzea garrantzitsua da, bai mintegiko lurrean daudenean, baina batez ere ontzietan daudenean; tarteren batean ur eskasia nozitzuz gero, hazkundera gelditu baitaiteke. Hau ezinbestekoa da lurpean sustraijea eta lur gainean kimuaren puja ahalik eta indartsuenak osatu ditzan.

Posible da geruzatutako haziak dagoeneko erneta egotea. Horrela bada, hazia bere sustraitxoarekin eta kimuarekin landaretxo bat bezala tratatu eta, erein beharrean, landatu egingo dugu.

Hazitik sortutako lehen urteko landarea landatzen ez bada, hostoa galdu ondoren, udazken-neguan, landarea atera eta birlandatu egin behar da. Berrito loreontzian egiten bada, lehengo baina loreontzi handiago batean, eta lurrean egiten bada, hazteko beharko duen tartea utzita.

### Txertaketa

Txertaketa teknika garestia da eta zuhaitz edo arbola bereziak sortu nahi direnean erabiltzen da. Fruta arboletan ezaguna da, baina baita parke eta lorategietan erabiltzen diren espezie batzuetan ere.



Koroa erara txertatutako sagarrondoa. © Araitz Eizagirre.

## Gaztainondoan txertaketa

Markel Arriolabengoa

*Bizi Baratzea Orria 5, 2026ko udaberria.*

Zuhaitz edo arbola barietate bat mantendu nahi denean egiten da txertaketa. Frutagintzan, lurrera ondo egokitzen den barietatea eta fruitu ona ematen duena elkar itsasten dira, ezaugarri biak bilduko dituen holobionte emankor bat sortu asmoz. Klonazio prozesua da finean.

Araitz Eizagirrek irakatsi zidan, pasa den udaberrian, gaztainondoak txertatzen. Otsailean mentuak biltzera bidali ninduen lehenik, gustuko zuhaitzaren urteko kimu indartsuak hartzera. Hozkailuan edo lurpean gorde nitzala aholkatu zidan, trapu heze batean bildurik.

Hozkailuan gordez gero, oihal hori filmez bildu behar da lehenik eta plastikozko zorro baten sartu gero. Haren hitzetan, lurrean gordetzea omen da onena, 30-40 cm-ko sakoneran, tenperatura egonkorra den tokian.

Apirilean, gaztainondoaren begiak lehertzeko zorian daudenean, orduan egin behar da bi zuhaitzen batuketak. Mentuoinak hatz lodiak baino gizenagoa behar du; zenbat eta lodiagoa izan, orduan eta mentu gehiago jarri ahalo dizkiogu, baina kontuz, zauria handiegia izatea ere ez baita komeni. Beraz, zu ere hasiberria bazara, aukeratu 3-4 zentimetroko diametrodun mentuoina eta hartu patxadaz.

Bildutako adarretatik ederrena aukeratu eta moztu zati bat, hiru begiko tartea eman. Mentu horren punta diagonalean moztu eta oinaren azalean ebaki arin bat eginez, bertan txertatu.

Mentuek koroa bat sortuko dute oinaren ebakiduraren bueltan.

Araitzek silikonazko zinta batez lotzen ditu, eta erretxina, argizari eta gantzez egindako breaz estaltzen ditu gero.

Ezinbestekoa da udaberrian oinak emango dituen kimuak eskuz kentzea, indar guztia mentuak har dezan, eta garrantzitsua da baita ere zuhaitza orkatz, orein eta bestelako piztietatik babestea, kimu berriak goxokiak baitira horien begietan.

Egin froga apiril honetan eta, inguruan Araitzik ez baduzu, erratzuz ikasi.

Txertatutako arbolak bi zati ditu: txertoari eusten dion mentuoina eta haren gainean txertatzen den txertoa edo mentua. Txertatutako arbola beti bi landarez osatutakoa izango da. Mentuoinaren lanak landareari eustea eta, era berean, lurretik elikagaiak hartu eta izerdi gordina arbola-aren adaburu aldera bideratzea dira. Txertoaren lanak, al-diz, lurretik datorren izerdi gordina hostoetara bideratzea, hostoetan fotosintesiaren bidez izerdia lantzea eta arbola elikatuko duten gaiak sortzea, eta izerdi landu hori arbola guztira zabaltzea dira.

Txertoa helburu zehatz batzuekin egiten da. Orokorrean, toki bateko lurrera egokitzen ez den barietate bat landatu nahi denean, lur horretan ondo bizi daitekeen mentuoinaren gainean txertatutako da. Fruta arboletan tamaina jakin bateko arbolak izateko, guk nahi dugun barietateko fruituak izateko, edo fruitu aleak lehenago eta ugariago emateko. Parke eta lorategikoetan balio estetikoak lortu nahi dira: forma jakin bat (negartia, zorrotza...), kolore bereziko hostaila eta abar.

Era askotako txertoak daude, zotzekoak edo adarrekoak, begikoak, azalekoak, hurbilketakoak eta abar. Sortu nahi den landarearen arabera erabakiko da zein teknika erabili, eta honek *haginduko* digu noiz eta nola egin.



Intsusa aldaxkak.

### Aldaxka

Aldaxka arbolaren adar zati bat da. Zati hori moztu eta uretan edo lurrean jartzen da sustraiak eman ditzan eta erro-tu edo itsatsi dadin. Eguzkiak jotzen ez duen toki epelean eduki eta lurrean bada, heze antzera eutsi.

Itsasteko lagun onak izango ditu hazteko hormonak. Hormona horiek hauts kimikoak izan daitezke edo dilistekin edo sahasarekin egindakoak. Dilistekin egiteko, paper bustian bilduta eduki dilistak ernetu arte, orduan poto batean sartu, ura erantsi eta irabiatu. Bestela, **sahatsaren** azal berria zuri, txikitu eta uretan eduki egun pare batez, irabiatu eta txikitu. Ur horiek erabili aldaxkak ureztatzeko.

Aldaxka itsatsi denean, loreontzian jarri edo baratzean landatu. Arbola guztien adarrak ez dira berdin itsasten, batzuk oso erraz errotzen dira, **zume** edo **pikondoan** adibidez, eta beste batzuk oso zailak dira.

*Ez itzal gabeko arbolarik,  
ez baia gabeko gizonik*



Zuhaitz sendatzailea, Aurizperri (Nafarroa). Ilustrazioa: Goiko, *Atlas etnografico de Vasconia*.

ipintzen zaizkio goiko puntan)". Abadiñoko udal artxibategian jasoa dago 1926an zortzi erreal ordaindu zirela San Torkaz eguneko jaietarako maiatza ekartzeagatik (*Garai: costumbres, fiestas y danzas* liburuan Iñaki Irigoien Etxebarriak jasoa). Liburu berean jasoa da Garaiko 1715eko datu hau: ordaintzen dira "hamar erreal ohi bezala jarri den San Joan eguneko arbolaren kostua". Getxon abuztuko jaietan Donibane-zuhaitza kaiko hondartzatxoan zutitzen da eta bigantxa azpian dabilela bertara igotzeko saioa egin behar da.



Perkusiozko musika-tresna da, erresonantzia-kaxa bat, bost mailu eta biradera duen arrabol bat. Aste Santuko ilunpeko ofizioetarako. Arzubiagako (Araba) eliza. Haritza eta zumarra. Euskal Museoa Bilbao.

Subila enbor handia da. Neguko solstizioan, gaua moztzen eta egun argia luzatzen hasten denean, etxeko sua, beheko sua, berritu egiten zen. Horretarako subil edo enbor handiak ekartzen ziren eta haiek piztu egiten ziren, sasoi berri osorako balira bezala. Aezkoan (Nafarroa) ahalik eta **pagorik** handiena erabiltzen zuten. Subil horiek irudi izugarria ziren etxekoentzat. Eguberri inguruari "subilaro" esaten zaio, Luzaiden xuhilau-hatsa, eta orduan erretzen jarritakoari subil-egur, subilaro-egur (Aezkoa), sekularo egur (Erronkari), sukularo-egur (Zaraitzu), sukubela (Liginaga-Astüe), gabon-subil (Abadiñoko eta Antzuola), gabon-mokor (Bedia), mukur (Durango), mukur mando eta arte (Bermeo), gabon-zuzi (Zegama), gabon-gaua (Zerain), gabon-enbor (Telleriarte), gabon (Trespentes), txubilar (Zangotza), bazterreko zokoko eta zonbor (Eugi), bazter-egur (Berastegi), Olentzero-enbor (Oiarzun), Onontzaro-mokor (Larraun) eta porrondoko (Agurain). Gabon arratsa subil-arratsa da eta gabon afaria subil-afaria.

Behiari erroa handitzen zaionean, neguko solstizio hasierako edo subilaroko subilaro-egurretik jasotako zati bat erre, eta erroa keztatzen zen harekin.

Herrietako jaietan eta bestelako ospakizunetan plazan edo toki ikusgarri batean enbor luze-luze bat ekarri eta zutik jartzen da. Izen asko ditu: maiatz-haritza, garrazta, maioa, maiatzeko zuhaitza, libertateko zuhaitza, donibane-zuhaitza, doniene-atxa. Toki batzuetan maiatzaren lehenarekin jartzen da eta beste batzuetan herriko jaietan edo Donibane egunaren inguruan. Herriko gazteek basoko enbor mehe luzeena moztu eta ekartzen dute. Muturrean ikurrina, lore sorta eta abar jarri eta zutitzen da. Goraino igo eta lore sorta jaisten duenak saria du. Nafarroan, Amezkoan eta Etxarrin **pago** bat da, baina **makala**, **lizarra**, **pinu gorria** eta abar ere izan daiteke. Lesakan maiatzaren lehenean mutil gazteek **makal** handiena moztu eta neska ederrenaren atarian jartzen zuten. Herri askotan egiten da oraindik ere.

Bizkaietan, Durangaldeko herrietan jaieguneko dantzarekin lotuta jaso du Josu Larrinagak: "Bezperan, entsegua egiten da, eta *Doniñeatxa* landatzen (zuhaitz luze bat, erabat soildua eta zuritua, eta artaburuak, erramu-adarrak eta loreak

## Artea

Euskal artean egurra oinarrizko langai garrantzizkoa izan da. Eskulturak, tailak, eliz aurrealdeak, margolanen oinarriak, pirograbatuak, xoligrafia eta abar egin izan dira egur eta zur ugarirekin. Artea sortzeko tresneria ere maiz zurezkoa da: pintzel-kirtenak, arkatzak, astoak, markoak, oholak eta abar.

**Udarea, sagarrondoa, intxaurrendoa, zedroa, sekuoia, gatzainondoa, haritza, haritz amerikarra, lizarra, platanoa, pagoa, artea, pinua, astigarra, gereziondoa eta zumarra**, besteak beste, zur onak dira artegintzarako.

*Land Art* deritzaon arte mota bat ere bada, XX. mendeko 60ko hamarkada aldera sortua: natura hartzen du artearen oinarri, maiz iraupen oso motzekoa den artelanak egiteko. Era guztietara lantzen da naturan bertan dagoen "material" aukera, tartean, baita zuhaitzak ere.



24 orduak euskaraz ekimenerako Jose Luis Zumetaren artelana. 1976. Zubietako Errekondo egur zerrak eskainitako haritz ipurdia.



2012an, Zilbetiko basoa (Erroibarko Udala, Nafarroa) meatzaritza proiektu baten mehatxupean zela, Monte Alduide koordinatzailearen ekimenez egindako murala. © Xabier Peñalver.

## Bitxikeriak

- **Lekeitioko atabaka.** XIX. mendean, eguraldiaren arabera, baporeen nagusien botazioz erabakitzen zuten itsasora atera edo ez, bolatxo batzuk atabaka izena duen kutxan alde batean edo bestean sartuta. **Kaobazko** pieza da eta Bilboko Euskal Museoa dago.
- **Lurpeko ura topatzeko makila.** Ur-aztiak, ur-aurkitzaileek edo erradiestesistek lurpean ura non egon daitekeen aurkitzeko txardango formako egurrezko adar makilatxo bat erabiltzen dute eta gehienetan **hurritzekoa** da. Urarekin duen loturagatik **sahatsa** ere izan daitekeela dio baten batek eta **lizarra** ere aipatzen da.
- **Anbar.** Zuhaitzen izerdi fosildua da anbara. Kolore askotakoa da, hori, zuri, gorri, laranja; eta ia gardena da. Zuhaitzak izerdia jariatzen duenean kanpoan izerdi hori gogortzen hasten da, eta harrapatzen duen

animalia, espora, inurri, tximeleta, hazi eta abar barruan mantentzen ditu, erretxina hori arkaitz artean anbar bihurtzen denean. Gerora, ikergai garrantzitsua da anbara, sortu zen garaiko zuhaitzak eta inguruko intsektu eta abarrak ikertzeko. Euskal Herrian bi anbar aztarnategi ezagun ditugu, biak Araban: Gatzaga-Buradon eta Uriza-harra. Azken horretan intsektu ugari topatu da anbarean harrapatuta, tartean munduan ezagutzen den euli zaharretakoa, *Euliphora grimaldii* izendatu zena. Anbara, batez ere, bitxiak egiteko erabiltzen da.

- **Jaioberrien basoak.** Ohitura berria da herri batzuetan jaioberri bakoitzeko arbola bat landatzea. Adibidez, Gernika-Lumon, Astigarragan, Hondarribian, Eskoriatzan, Zumarragan, Arbizun eta Donezteben.

## Berrikuntza

Gaurkotasan erabateko duen lehengaia da zura. Adierazle dira zur laminatuak, egurretik eratorritako bio-grafenoarekin osaturiko xaflak edo hirietako zur hutsezko eraikin berriak. Euskal Herriko Axalko markako bizikletak lizarrez eta pagoz egiten dira nagusiki, eta karbonoaren zein aluminioaren ezaugarri berdintsuak dituzte.



Zaindu zuhaitzak, mundua salbatzen lanpetuta daude

# Elorriak

## Ziztalariak

**E**lorri zuriak eta beltzak bereizten ditugu. Biak familia berekoak dira, errosazeoak, baina ondo bereizitako eta elkarrengandik urrun xamarreko bi tribuetakoak dira. Elorri beltza *Amygdaleae* tribukoa da eta bere generoa *Prunus* da, mertxikondoa, gereziandoa, abrikotondoa, aranondoa eta arbendolondoarena bezala. Elorri zuria, aldiz, *Maleae* tribukoa da eta bere generoa *Crataegus* da, soilik elorri zuriak biltzen dituena.

Botanikaren ikuspegitik hain urrunekoak diren bi landare multzo nolaz dira izen bereko euskaldunontzako? Biak elorriak, elorri zuria eta elorri beltza; biak arantzak, arantza beltza eta arantza zuria.

Ziztalariak dira elorriak. Hori da haien ezaugarri nagusia: behar baino gehiago inguratzen zaiena ziztatu egiten dute. Hortik dira guretzat izen bereko: zizta egiten duten arantzak edo elorriak dituzte.

Oso hurbileko ditugu, izan ere, erabilera ugariaren etekina kendu izan diegu: osasungintzarako, zura eta egurra, hesitarako, lorea, fruitua... Horrek ia-ia etxekotu egin ditu eta hortik eman diegun izen mordoak. Elorri beltzak gutxienez 70 izen baditu eta elorri zuriak 27 behintzat bai. Ikusi eta gozatu bien orrietan.

Tximist-bildurrez elorri-xuxta ezkerrean du Garazik.

Nikolas Ormaetxea "Orixe"  
*Euskaldunak*, 1950

Elorri beltzezko hesia loretan.

# Ereinotza *Laurus nobilis*

Erramu · erramutze · ereinuntz · clautz · cleuntz · remolorio · laurel · erramu español

**M**editerraneo inguruko herrialdeetako espeziea da jatorriz. Hala ere, gaur-gaurkoz ezaguna da munduko beste hainbat txokotan ere. Garrantzia sinbolikoak, lorezaintzarako erabilerak eta hostoen usain erakargarriak bultzatuta, eremu askotara eraman du gizakiak zuhaitz hau. Euskal Herrian kantauriar isurialdean bizi da bereziki. Izan ere, eremu epelak maite ditu, hezetan ugariak eta muturreko tenperaturarik gabekoak.

Ereinotza Izotz Aro aurrekoa da, duela 20 eta 5 milioi urte arteko Miozeno garaiko laurisilba basoen aztarna bizia. Laurisilbak ereinotz basoa esan nahi du. Garai hartan, eremu tropikala zen gurea eta ereinotzaren ahaide ugari bizi zen basoetan. Gerora, baina, glaziazioak medio, landaredia asko aldatu zen, eta laurisilba atlantikoak klima epel eta hezeenetako eremuetan besterik ez du iraun; Makaronesian nagusiki.

Edozein lurretan bizi daiteke, kasu bakan batzuetan ereinotz basoak eratuta, baina gehienetan beste hostozabal batzuen artean sakabanatuta. Itsas mailatik 800 metro bitarteko altitudetan bizi da, beti ere izozte handiegirik izaten ez den basoetan.

Motel xamar hazten da eta 200 urte inguru arte bizi daiteke. Erraz ugaltzen da motzondotik zein sustraietatik altsuma eta aldakaitz berriak sortuta. Sustrai edo adarren ebaki, aldaxka eta belauketa bidez ere berritu daiteke. Haziak geruzaketa eta xehetze malgu baten beharra izaten dute ondo ernetzeko.




**5-10 metrorainoko** zuhaixka da. Adaburu mardula izaten du, oboidea batzuetan, irregularra askotan. Oinarritik zein sustraietatik kimu berriak sortzeko joera handia izanik, multzoka hazten da maiz.

**Hostoek** osorik estali ohi dute zuhaixka, behetik hasita. Hosto bereizgarria du: gogorra, berde iluna gainaldetik eta argixegoa azpialdetik. Atzamarrekin estutzean edo puskatzean, usain atsegina askatzen du. Lantza punta zabal baten formakoa da, 12 cm-rainokoa eta iraunkorra. Adar zein hostoak era txandakatuan hazten dira.

**Azal** leuna eta fina du, korapilo gutxiak eta kolore nabar-berdexka edo grisaxka duena.

Dioikoa da, **lore** arrak eta emeak zuhaitz banatan jaiotzen dira. Sexu bietako loreak oso antzekoak dira. Ponpoi txikien itxura eta kolore zuri-horixka dituzte, eta hostoen oinarrian zabaltzen dira. **Fruituak** oliba txiki baten antza du, 1 cm ingurukoa. Berdea da hasieran, eta beltz-urdinxka heltzean.

Otsaila eta maiatza artean loratzen da eta fruituak irail-urrian heltzen dira.



## Erabilerak

Ereinotzak *Laurus nobilis* du izen botanikoa, latineko *laudari* (ohoratu) eta *nobilis* (noblea, gurtua) erroetatik datorrena, erabilera ugari izan baititu beti, bai sukaldetan, bai osasungintzan. Gehienbat sukaldetan erabiltzen da, berdetan zein lehortuta: bere hostoaren lurrina oso ezaguna da, makina bat jakiren gozagarri. Digestioan lagungarri dela diote. Edorta Agirrek bere *Ase eta gose* 2003ko almanakan ederki asko azaldu zuen: "Hostoak ebakita patata, ehiza, eskabetxe eta postrearen batean erabiltzen dira, fresko edo lehor". Mariano Ostolaizek, bere *Senda-belarrak* liburuan erakusten digu nola bildu eta jaso: "Hostoak martxoan bildu behar dira; eta pruitua, ondutzen denean, udazkenean. Nahiz hostoa edo pruitua itzalean sekatuak izan behar dute, eta sekatzeko ontzi baten barruan sartu eta itxita iduki, hautsik hartu ez dezan".

Egurra gogorra du, usaintsua, astuna, hausgogorra, hori gris-arrexka eta gizen eta gihar arteko bereizketa argirik gabea. Sutarako moztzen eta zartatzen zaila da eta ez da erregai ona, azkarregi erretzen da.

Hostoen olio esentzial usaintsu hori baliatzeko armaruetan jartzen da, arropa artean, sitsek eraso ez dezaten.

Apaingarri gisa ugari erabiltzen da, hostaje berdea du urte osoan eta ederki eramaten du inausketa. Haizetik babesteko hesiak egiteko ere oso egokia da.

Etxe askotako atari edo katuaren mugarrien barruan ikusiko duzu ereinotza. Tximistak ez duela jotzen uste da, eta ate eta leihoetan jartzen da bere adarra. Tximistak direnean, haiek uxatzeko, bertatik hosto bat hartu eta sutan erretzen da. Kristautasunak bereganatua du ohitura hau eta eraginkorra izateko udaberriko solstizioaren ondorengo lehen ilargi betearen izaten den Aste Santuko Erramu Egunean bedeinkatu egiten da adar hori.

Bere fruituen olio etxeko abereen ilean igurzten zen, intsektuak hurbildu ez zitezen. Adrian Gatzitegik bere *Zuhaitzak*

*Euskal Herrian* liburuan honela bildu zuen: "Fruitu idorrekin egin daiteke olio berdail bat, hauta beharduren sendatzeko, hezurrerrien eta pikoan minak maltsatzeko, bai eta ere uli eta zamarrulien kabaletarik urruntzeko".



Fruitua.

urruntzeko".



Lorea.



Azpeitiko (Gipuzkoa) zezen plaza, Apalantza, Bitok eta Garin korrikalariak 1991/04/07.

## Bitxikeriak

Etxeak ere ereinotzez koroatzen dira geurean: etxe berria egiten denean, teiltatua ematen zaionean, ereinotz adar handi bat jartzen da gailurrean. Adar honek aterpe berria osatu dela eta ospatzeko jairako deia egiten du: lanean aritu diren guztientzako otordua eta festa antolatzen ditu etxearen nagusiak. Afari-merienda horri erramua esaten zaio, Iparraldean aldaxka, Goierrin tranpalea, Erronkarin kulikadera, Tolosaldean galdor-afari, galdor-festa Arakil aldean, Gipuzkoako Beterrin gailur-festa, jasota daude baita ere galdur-etzai, bizkar-festa, kaldor-afari eta kaldor-besta. Oartzunen jaso zuen Joxe Miel Barandiaranek etxeren bat teiltatua eman eta erramurik jarri gabekoa bazen, istripuren bat gertatzeko arriskua zuela, eta jasotako esaerak hala dio: "Erramurik gabea duk itxi (etxe) hau".

Garai batean apustu edo sariketetan, batez ere korrika-apustuetan, garaile zenak hosto beltza (hosto beltza) irabazten zuen. Nemesio Etxanizek jaso zuen esaera. Irabazi eta buruan jartzen zitzaionari ereinotz-ailara (Jokin Zaitetik idatzia, *Sopokel'en antzerkiak*, 1946), erramu-boneta eta sari-erramua ere esaten zitzaion eta bera buruan jartzei erramuztatzea edo erramutzea. Vanesa del



## Gaitzak eta izurriteak

*Protospulvinaria pyriformis* kotxinila bizkarroia ereinotzak duen izurritek hedatuena da. Ia ale guztietan aurkitzen da intsektu hau. Hostoak ziztatu eta ereinotzaren izerdiaz elikatzen da. Beraien gorozki likatsuetan *Capnodium* generoko onddo beltz bat garatzen da eta zuhaitza desitxuratzen du.

*Lauritrioza alacris* zimitzak kalteak sortzen ditu ereinotzaren hostoetan. Intsektu helduen zitzadaren ondorioz, hostoak zimurtu eta biribilkatzen dira. Sortutako tutu antzeko egituraren barnean haziko dira zimitzaren ondorengo belau-naldiak. Denboraz, hosto horiek kolorea galtzen dute eta erori egiten dira. Luzera kaltea ez da handia izaten.

Europar zehar zabalduta den *Xylella fastidiosa* bakterio arriskuak ereinotza zimeldu eta hil dezake. *Phytophthora ramorum* onddoa ere azken urteetan zabalduta den gaitz arriskuak da. Sustraietatik sartzen da landarearen izerdi tutuetara. Hauen lana oztopatu ahala hiltzen da zuhaitza.

## Lagunak

**Zozoa**  
*Turdus merula*

Zozoak eta erramuak harreman estua dute. Zozoari janari iturri aparta ematen dio erramuak, eta erramuari bere haziak sakabanatzen laguntzen dio zozoak.



*Wiesneriomyces laurinus*

Onddo honek ereinotzaren egur hila du bizileku. Egurra usteltzen laguntzen du eta, horrela, lurra ontzen du, hainbat osagai askatu ahala.



Abaritza *Quercus coccifera*



Ahuntz sahatsa *Salix caprea*



Ailantoa *Ailanthus altissima*



Astigar zuria *Acer pseudoplatanus*



Atlasko zedroa *Cedrus atlantica*



Altzifre arrunta *Cupressus sempervirens*



Alepo pinua *Pinus halepensis*



Alertzea *Larix decidua*



Ametza *Quercus pyrenaica*



Basagereziondoa *Prunus avium*



Basagurbea *Sorbus torminalis*



Udareondoa *Pyrus communis*



Ametz llaunduna *Quercus humilis*



Araukaria *Araucaria araucana*



Arte kantauriarra *Quercus ilex subsp. ilex*



Baso-makatza *Pyrus cordata*



Elorri beltza *Prunus spinosa*



Ereinetza *Laurus nobilis*



Artelatza *Quercus suber*



Astigar arrunta *Acer campestre*



Astigar zorrotza *Acer platanoides*



Erkametza *Quercus faginea*



Eukalpto urdina *Eucalyptus globulus*



Ezki hostozabala *Tilia platyphyllos*



# Hitzen altxorra

Zuhaitzak eta arbolak,  
egurra eta zura,  
5.000 hitzeko ondarea

Hur, ur, lur, zur,  
egur, elur, hezur,  
ezkur, intxaur,  
gurbe...

**OHARRA:** Zuhaitzen eta bere kultura izugarriaren euskarazko itzelezko altxorren arrasto txiki bat besterik ez da honako hau.



**Aabegi.** Adabegi.  
**Aasa.** Egurra lantzeko bi aldeetan helduleku bana duen labana tankerako tresna. Enborrak zuritzeko edota saskigintzan erabilia. Azi. Bastrel. Hauze. Marraza.  
**Abaildu.** Fruituz muku den arbolaren adarrak okertu eta makurtu.  
**Abaki.** Ez mehe eta ez lodi, tartekoak diren adarrak.  
**Abako.** Zurezko edo beste materialez egindako bolatxo bidez kalkulatzeko taula.  
**Abaldeko.** Gapiario.  
**Abar.** Adar. Artelat. Arte.  
**Abar-faxo.** Abar-sorta.  
**Abar-haxe.** Abar-sorta.  
**Abar-hosto.** Lizarraren edo beste arbolaren adarrak hostoz jantzita daudenean moztu, lehortu eta zatukatan jaso egiten dira, gero azientaren bazkatarako.  
**Abar-ikatz.** Iduri.  
**Abar-mutur.** Zuhaitzaren enborra.  
**Abar-sorta.** Adar mehe lehor sorta. Abar-faxo. Abar-haxe. Abar-zama. Txortabar.  
**Abar-zama.** Abar-sorta.  
**Abardi.** Eraitsitako basoa. Su egur hondakin pila. Adartxo hondakinak dauden saila.  
**Abargi.** Moarratu ondoren, berriz adarrez jantzen den zuhaitz motza. Aldian-aldian zuhaitzak inausita, erregaia sortzen duen saila. Azientak biaoako edo siestarako gustuko duen zuhaizpea.  
**Abargiatu.** Hiru urtez behin su egurretarako arbolak inausia.  
**Abaritz.** *Quercus coccifera*. Artanozka. Arteko. Artexka. Karraska. Koskoil. Txapar. Txartaka. Zubeltz. Zumal. Zumel. Zumel-txartaka.  
**Abarizti.** Abaritza nagusi den zuhaitzia edo lursaila.  
**Abarka-ezten.** Abarkak zulatu eta josteko mutur fina eta zorrotza eta zurzko kirtena dituen.  
**Abarkatu.** Moztutako edo botatako zuhaitzari adarrak kentzea.  
**Abarki.** Egurretarako adar jendea.  
**Abaro.** Baso sarria edo tapitua.  
**Abaro-habe.** Zuhaitz zaindaria.  
**Abarrategi.** Abartegi. Txaradi.  
**Abarretan.** Su egurra biltzea.  
**Abarrezatu.** Adarrekin estali edo itxi. Abarreztu. Adarrezatu.  
**Abarreztu.** Abarreztatu.

**Abartegi.** Sutarako egurrak eta adarrak jasotzeko tokia. Abarrategi.  
**Abartsu.** Adaburua ostaila eta adarje trinkoa, ugaria duena. Ospe.  
**Abartu.** Adarrak eman. Maskaldu.  
**Abartza.** Adar pila.  
**Abartzeta.** Artadi.  
**Abarxka.** Adartxo txiki. Abarxot. Abarxkila. Madal. Kordoka. Adarkila.  
**Abarxkila.** Abarxka.  
**Abarxkot.** Abarxka.  
**Abatz.** Artzainek esnea jasotzeko eta gatzatzeko erabiltzen zuten zurezko ontzi berezia. Kaiku. Gopor. Gurpilaren erdiko pieza, erradioak biltzen dituen eta ardatzean lotzen dena.  
**Abe.** Txara tankerako zuhaitz eta landerekin sarria den basoa.  
**Abelize.** Hurritz mota.  
**Abilbarri.** Elorri zuri. *Crataegus monogyna*. *Crataegus laevigata*.  
**Abilurri.** Elorri zuri. *Crataegus monogyna*. *Crataegus laevigata*.  
**Adabegi.** Adarrak enborrean uzten duen marka edo korapiloa, gero egurrean edo zurean azaltzen dena. Adarbegi. Arabegi. Aabegi. Zainar. Adapo. Adañi. Korapilo.  
**Adaburu.** Zuhaitzaren enborrean gaineko adar eta hostoen multzoa.  
**Adaburutu.** Inausi.  
**Adaganeko.** Lurrera erori gabe, arboletik bertatik biltzen den fruitua.  
**Adakaitz.** Zuhaitzen adar, enbor edo sustraietan sortzen den tumorea. Lupu. Atze-ñiñi. Urrubi. Arakondo. Biziena. Txoskor. Gaztaina-titi. Garitz. Mozkor. Titi. Tipula. Trosko. Troskote. Porrilla. Urrubi. Trunpilo. Txurro.  
**Adaki.** Adar lodikotea, eskumuturraren tamaina modutsukoa, batez ere su egurretarako erabiliko dena. Esku makil lodi sendoa.  
**Adaki-ikatz.** Ikatz mehe.  
**Adakin.** Adarraren mutur mehe.  
**Adakitu.** Adarrei hostoak kendu. Adar handiak inausi su egurretarako.  
**Adan.** Elorri beltz. *Prunus spinosa*.  
**Adañi.** Adabegi.  
**Adaondu.** Inausi.  
**Adapo.** Adabegi. Enborrearen korapilo. Adarraren oin.  
**Adapotsu.** Egur korapilotsua, erai-kuntzarako desegokia.  
**Adar.** Zuhaitzaren enborretik sortzen diren besoak. Abar. Arrama.  
**Adar-apal.** Enborrean azpikoen hazi diren adarrak. Adar makurtuak.  
**Adar-zulo.** Uztarrian lotutako ganaduren adarren gainean asentatzen diren uztarriaren lau koskak. Ugatz.  
**Adarbakotu.** Adargabetu.

**Adarbegi.** Adabegi.  
**Adarberritu.** Inausi, hautsi edo beste arrazoiren batengatik moztu den adarrak edo enborrak adar berriak ematea.  
**Adardi.** Adar multzoa.  
**Adardo.** Adartsu.  
**Adardun.** Adartsu.  
**Adareta.** Golde.  
**Adargabetu.** Adarrak kendu. Adarbakotu.  
**Adargune.** Adarrak enborrean uzten duen marka edo korapiloa. Adarrondo.  
**Adarje.** Adar multzo. Adarpe.  
**Adarkatu.** Adarrak ematea.  
**Adarkila.** Abarxka.  
**Adarkoi.** Adartsu.  
**Adarño.** Adar txiki. Adartxo.  
**Adaro.** Labea garbitzeko erratz. Golde.  
**Adarpe.** Adarje. Adarren azpi.  
**Adarreko txerto.** Zotzako txerto.  
**Adarreztatu.** Abarreztatu.  
**Adarrondo.** Adargune.  
**Adartsu.** Adaburua jantzen duen hosto eta adar multzo mardula. Adardun. Adardo. Kordokadun. Hostotsu.  
**Adartu.** Zuhaitz biribil gailurtua.  
**Adarxko.** Adarraren mutur. Adar txiki.  
**Adaxka.** Zuhaitza ugaltzeko erabiltzen den adar zatia; adarraren amaren berdina izango diren landareak sortuko dira. Lakatz. Aldaxka.  
**Adaxkatu.** Adaxka bidez ugaltu, adarraren amaren berdina izango diren landareak sortu.  
**Adaxkila.** Adar txiki.  
**Aerenkima.** Lur istiluetan bizi diren zuhaitzek sustraietan garatzen dituzten egiturak.  
**Agai.** Fruitu arbolak moiltzeko haga mehe, luzea. Karobiko errautsak nahasteko haga. Lepatu gabeko zuhaitz, tantai. Gurdi gaineko.  
**Agestoi.** Harizti.  
**Agetx.** Haritz.  
**Agilloi.** Lau uretako teilatuetan, puntatik lau ertzetara doan habea. Bi uretako teilatuetan, gailurra eta zapataren artean bie paraleloa den habea.  
**Aginmin.** Hirukotx.  
**Aginte-makila.** Dagokion agintean makila. Alkate-makila.  
**Agoarras.** Pinu azalek jariatzen duten izerdia (trementina goma) destilatuta, eta pinu egurren nafta disolbatzaile baten bidez erauzita, lortzen den olio esentziala. Turmentina. Miera. Trementina.  
**Agoko.** Egur lodiarekin egindako ikatz.  
**Agor.** Fruiturik ematen ez duen arbola. Lur antzu.

**Agorrola.** Zearrola berriak bezala uraren energia erabili beharrenean, mendietako haizearena erabiltzen zuen zaharragoko burdinola.  
**Agurto.** Bakanduta edo entresaka eginda, edo meztu edo suebakiekin banatutako zuhaitzia.  
**Ahaide.** Familia bereko kide.  
**Ahartzain.** Aharien zaintzaile. Ganadu zaintzaile, orokorrean. Herri osoko ganaduen zaintzaile.  
**Ahintari.** Arotzaren edo zurginaren soka.  
**Ahizpak.** Zuhaitzak lurraren mailatik hasita dituen bi enbor bikiak.  
**Aho.** Ebakitzen duen tresnaren sorbatza, zorrozten dena. Ahobizar.  
**Ahobizar.** Aho.  
**Ahotz.** Gaztainaren morkots.  
**Ahutz.** Zerratu behar den enborra jartzeko aldamiaio.  
**Ahuntzetxe.** Mendian dagoen ganaduentzako borda.  
**Aieka.** Ertza, aldea.  
**Aihen.** Eraikuntza bat egiteko asmoa zegoen tokia markatzeko jartzen zen seinalea. Teilatuan zurajeko ale asko gurutzatzen diren tokia. Mahastietan jartzen den zurkaitz.  
**Aihen-belar.** Landare igokarien izen orokorra.  
**Aihotz.** Ote, lahar, garo, ihi eta abar mozteko tresna. Bedan. Bedarina. Belagoi. Belauri. Belau. Zarrakamalda. Zuzena bada bedoi, marraza.  
**Aila.** Fruitu alearen txortena.  
**Ailanto.** Zeruko zuhaitz. *Ailanthus altissima*.  
**Ailara.** Luzetara zartatutako adar meheetik sortutako zumitz tankerakoa, baina alde bakarretik landua; barririk lotzeko, saskigintzarako eta abar. Uztai.  
**Ailarri.** Elorri zuri. *Crataegus monogyna*. *Crataegus laevigata*.  
**Ailimar.** Sutondoan edo labe ondoan lehortzen diren ezpalak, gero erraz erre daitezten.  
**Ainar.** Txilar.  
**Ainizar.** Txilar.  
**Aino.** Txilar.  
**Aintzola.** Hankalera.  
**Ainube.** Laiotz.  
**Aiputu.** Hazitik datorren hosiari ateratzen lagundu. Alkotu.  
**Aitañi bilo-xuri.** Makalaren hazi zuria, arina eta haizeak sakabanatzen duena.  
**Aitor.** Lur gizen, oparo, emankorra.  
**Aitzinegur.** Su egur pilako egurrei eusteko aurretik jartzen direnak.  
**Aitzui.** *Acer campestre*, *Acer platanoides* eta *Acer pseudoplatanus*.  
**Aitzutu.** Esku bakarrarekin erabiltzen den aitzur txikia.  
**Aiurri.** Izaera.

**Aizkol mutil.** Trangadera.  
**Aizkolari.** Zuhaitzak botatzen dituen. Egurgile. Egurgin.  
**Aizkolkatu.** Aizkoraz txikitu.  
**Aizkora.** Zurezko kirtena eta ahobizar zorrodun burdinezko burua dituen tresna.  
**Aizkora-igun.** Aizkoraren helduleku edo kirtena.  
**Aizkorol.** Aizkoraz edo opaitzurraz landutako ohola.  
**Aizmoarra.** Moarratutako zuhaitz. Su bazterrerako uzten den enborra, gehienetan haritza, pitzatzeko zaila delako adabegi eta abarregatik. Zuhaitzaren enborrearen kozkor.  
**Aizolbe.** Haizalpe.  
**Aiztaga.** Muturrean aiztoa duen haga. Lantza. Astamakila.  
**Akabiala.** Eraikuntza baten amaiera ospatzeko oturuntza. Teilatu-afaria.  
**Akain.** Animalien larruazalean haien odolaz elikatuz bizi den akaroa. Lakats. Kapar. Lakain. Lakasta. Bakasta.  
**Akal.** Gaztaina ale hutsa.  
**Akaro.** Armiarmen taldeko zomorrotxikia.  
**Akaski.** Zorretan saldutakoa bermatzeko akatsak egiten zaizkion taia edo erdibitutako makilaren bi erdiak.  
**Akazia.** Sasiakazia. *Robinia pseudoacacia*.  
**Akazia-ondo.** Sasiakazia. *Robinia pseudoacacia*.  
**Akaziatze.** Sasiakazia. *Robinia pseudoacacia*.  
**Akelamarro.** Arkanbele.  
**Aker.** Zerratu behar den egurra heldu eta finkatzen duten alboko egurrak.  
**Akilmarro.** Arkanbele.  
**Akuilu.** Muturrean eztena duen hurritzeko makila, lagunaren garaierakoa, garraio lanetan ari den animaliak zirikatzen. Tixta. Pertika.  
**Akuilu-gai.** Akuilua egiteko makila.  
**Akuilu-gain.** Akuiluaren muturreko ezten.  
**Akuilu-makulu.** Zurezko zango. Zangulomakila.  
**Akulamendi.** Arkanbele.  
**Ala.** Errioa eta sakonera txikiko uretan ibiltzeko zoru plano duen itsasontzia, gabarra baino txikiagoa.  
**Alagai.** Ala, gabarra edo ontzia mugitzeko urpean bermatuz erabiltzen den haga luzea.  
**Alagura.** Larreko azienda.  
**Alaka.** Inausita muturra kendutako adarra. Enborra zerratzean aldeetatik kentzen zaizkion kosterak; lata gisa erabiltzen dira teilatuan. Kostera. Kostala. Kostanera. Laka. Zurean adabegia aterata geratzen den zuloa.  
**Alamia.** Lertxun. *Populus tremula*.

**Alanbre eztaka.** Itxitura egiteko erabiltzen den arantzadun alanbrea. Txarrantxa.  
**Alapide.** Aziendarentzako bazka larre.  
**Alaro.** Larre sasoi.  
**Alasa.** Arasa.  
**Alastrena.** Alkaterna.  
**Albadar.** Kuku-adar.  
**Albainu.** Inguruko uztai zurezkoa duen bahe.  
**Albaka-albaka.** Mendi hegalean zehar-zehar ibili.  
**Albar.** Gizen. Zurgizen.  
**Albara.** Enborrearen gizen edo zati bizia.  
**Albastroan.** Egurra zakar landu.  
**Albate.** Uraren energia erabiltzen duen edozein tresnetara joateko urari bide eman edo kendu egiten dion ataka. Etxearen alboko atea.  
**Albendola.** Arbendolondo. *Prunus dulcis*.  
**Albeolo.** Landarea hazitik jaiotako eta txikia den artean biltzeko ontzixoa, gehienetan erretulu eran multzoka jarritakoa. Ziloska.  
**Alberrama.** Kuku-adar.  
**Albitz.** Almitz.  
**Albitz-belar.** Almitz.  
**Albo-adar.** Kuku-adar.  
**Alboki.** Alboaren edo platanaren egur edo zur.  
**Alboro.** Teilatu-afari.  
**Alda.** Aldaol.  
**Aldaera.** Barietate.  
**Aldaka.** Aldakaitz. Su egur sorta. Adar nagusian sortutako bigarren mailako adarra.  
**Aldakaitz.** Enborretik bereizita, zuhaitzaren sustraietatik sortzen den altsuma; gero amari lotutako landare berria izango dena. Aldaka. Aldakisten. Zehar-abar. Basadar. Erro-kimu. Erro-muskil.  
**Aldakar.** Landarearen txerto edo muskil bakar.  
**Aldakatsu.** Kimu eta altsuma ugari emateko joera duen zuhaitz.  
**Aldakatu.** Kimuak ematen hastea. Zuhaitza inausi eta adarrak kentzea.  
**Aldakisten.** Aldakaitz. Zehar-abar.  
**Aldamio.** Eraikuntzarako edo eraikuntzen mantentzeko eraikitzen den zurezko egitura. Inpuntu. Oholtza.  
**Aldaol.** Geruraska, ondaska eta ura bideratzeko antzeko tokietan erabiltzen den ohola. Alda.  
**Aldaparo.** Errota, zerrategi, burdindegiko tankerako tresneria mugitzeko indarra izateko, ibaiko ura desbideratzeko eta pilotzeko ubide handia. Antapara. Ubide. Erreten. Zanga.  
**Aldatu.** Landatu.  
**Aldaxka.** Enborretik bereizita, sustraietan sortzen den altsuma. Landare gaztea. Adar mutur. Teilatua

# Zuhaitzak eta arbolak Euskal Herrian

Bidaia bat kulturaren, naturaren eta  
hizkuntzaren erraietara

**N**on ez ditugu euskaldunok zuhaitzak landatu, zaindu, gurtu eta erabili? Babesa eman digute zuhaitzek; etxeak eta itsasontziak eraikitzeke zura; berotzeko, jakiak prestatzeko eta labeak pizteko egurra; burdina lantzeko ikatza. Oraino ere eskaintzen digute hori guztia eta gehiago: osatzen dituzte gure lanabesak eta musikarako tresnak, edertzen dizkigute jaiak, ekoizten dituzte hainbat jaki, elikatzen dituzte abereak, sortzen dituzte sendagaiak, hobetzen dute airearen eta uraren kalitatea eta eratzen dituzte ongizaterako ezinbesteko ditugun natura esparruak. Finean, gure kultura eta bizitzaren oinarri dira zuhaitzak.

Liburu honetan, belaunaldiz belaunaldi jaso dugun ondare hori guztia bildu dute Jakoba Errekondo, Markel Arriolabengoa eta Iñaki Etxebestek, jakintza horri eutsi diezaiozun, eta ondorengoek ere ezagutu dezaten.

Ikasiko dugu zuhaitz eta arbolen egituraz, ekologiaz, zuhaitz eta arbolekin lan egiteko moduez, basogintzaz, paisaiatzaz eta erabilereaz. Euskal Herrian aipagarriak diren 116 espezie identifikatzen ere lagunduko digu liburuak: bakoitzaren jatorria, ezaugarriak, beharrak, banaketa, erabilerak, bitxikeriak, gaitzak eta izurriteak, bertsoak eta esaera zaharrak ezagutuko ditugu. Gure begiek plazer hartuko dute ilustrazioekin eta milaka argazkiekin; tartean, Dani Blancok liburu honetarako berariaz ateratakoekin. Hiztegia ere badakar, zuhaitzen eta arbolen ekosistema natural zein kulturalean errotutako 5.000 hitzeko altxorra, gure hizkuntzaren aberasgarri.

 **ARGIA BIZI BARATZEA**

